

El
Tesorode la
Paz

ASTELEHENA OTOITZA

Jauna, bihur nazazu bakea lortzeko tresna.
Gorrotoa den lekuan, maitasuna erein dezadala;
Irainak diren tokian, barkamena;
Ikusi ezina den tokian, batasuna;
Etsipena den tokian, itxaropena;
Atsekabea den tokian, alaitasuna;
Itzala den tokian, argia.

Tesoro de la Paz

ASTEARTEA OTOITZA

Frantzisko aita santuaren otoitz —bideoa:

“Etorkin eta errefuxiatuen jurnaldi mundiala”

Esteka:

<https://www.youtube.com/watch?v=iEcj5wFfLhg>

Frantzisko aita santuaren otoitz —bideoa:

“Ume soldaduak”

Esteka:

<https://www.youtube.com/watch?v=8nU3DwWrKgY>



Tesoro de la
Paz

ASTEAZKENA OTOITZA

Gure Aita,

Gizakiok dei egiten dizugu.

Etor bedi laster zure salbamen, zuzentasun eta bake-erreinua.

Egin bedi zure nahia lurrean,

Fede berean elkaturik egon gaitezen.

Barkatu ez dakigulako askotan bakeaz jokutzen eta bere alde lan egiten,

Dauzkagun gauza onak elkarren artean banatzen ez dakigulako,

Eta lagundu indarkeriaren eta biolentziaren kateetan ez erortzen.

El
Tesorode la
Paz

OSTEGUNA OTOITZA

Zure aurrean, Jauna, talde bat osatu dugu.
Lagun-hurkoaren maitasuna sentitzen dugu.

Gure indarrak eskuak elkartu ditu,
Eta bihotzak Zurekin elkartu gaitu.

Jauna, elkar maite nahi dugu,
Inor bazterrera utzi gabe.

Pozik bizi nahi dugu,
Eta haserreak ez gaitzala elkarrengandik banandu.

El Tesorode la Paz

OSTIRALA OTOITZA

Zuk, Jauna, ezagutzen nauzu,
Ongi ezagutzen duzu bizitzari irekitzeko
Dudan gogo bizia.
Ongi ezagutzen duzu egun berri bakoitzean
Ipintzen dudan itxaropena.
Ongi ezagutzen dituzu nire maitasun desioak.
Baduzu nire ordu tristen berri,
Besteei ixten natzaienean.

Jauna,
Emadazu ADOREA neure burua ezagutzeko.
EGIZALETASUNA, ez neu ez beste inor ez engai-
natzeko.
AUSARDIA zure Hitza bihotz zabalarekin irakurtzeko.
Zure maitasuna nahi dut,
Eta horrela nire bizitzak emango du fruiturik.